Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

940

32/2009 DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, aurri-egoerako deklarazio-prozeduraren barne dagoen Vitoria-Gasteizko (Araba) Santo Domingo kaleko 9. zenbakidun higiezina desafektatzea ebazten duena. Ondasun higiezin hori Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa izendatu, eta hura zaintzeko babes araubidea ezartzen duen abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuaren eraginpean dago.

Aipatu higiezina (Santo Domingo kalea, 9), Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeari buruzko abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuaren eraginpean dago (1998ko urtarrilaren 15eko EHAA, 9. zenbakia).

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 36. artikuluan (abuztuaren 6ko EHAA, 157. zenbakia) sailkatutako eta zerrendatutako ondasunen eraispena debekatzen da, aldez aurretik Foru Aldundiaren aurri-deklarazioa eta berariazko baimena ez badago. Halere, aurretik Eusko Jaurlaritzak desafektaziorako baimena eman beharko du.

Aipatu arauak garatze aldera, azaroaren 10eko 306/1998 Dekretua egin zen, sailkatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari buruzkoa eta beroriek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa (azaroaren 26ko EHAA, 226. zenbakia).

Vitoria-Gasteizko Udalak Euskal Kultura Ondarearen Zentroari bidali zion hirigune historikoan dagoen Santo Domingo kaleko 9. zenbakiko higiezinaren aurri espedientearen kopia. Horrekin batera, aipatutako 306/1998 Dekretuari jarraituz, desafektatzeko espedienteari hasiera emateko eskatu zuen.

Higiezin horrek oinarrizko babesa du abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuaren arabera (1998ko urtarrilaren 15eko EHAA, 9. zenbakia), non Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa sailkatu eta hura zaintzeko babes arauak ezarri baitziren.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2008ko urriaren 30eko Ebazpenaren bidez (2008ko abenduaren 5eko EHAA, 234. zenbakia) Vitoria-Gasteizko Santo Domingo kaleko 9. zenbakiko higiezina desafektazeko espedienteari hasiera eman zitzaion, jendaurrean jarri zen eta interesdunei entzun zitzaien.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

940

DECRETO 32/2009, de 10 de febrero, por el que se desafecta el inmueble n.º 9 de la calle Santo Domingo de Vitoria-Gasteiz (Álava), incluido en el Decreto 312/1997, de 23 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz y se fija su régimen de protección, incurso en un procedimiento de declaración de ruina.

El inmueble sito en el n.º 9 de la calle Santo Domingo de Vitoria-Gasteiz (Álava) está incluido en el Decreto 312/1997, de 23 de diciembre (BOPV n.º 9, de 15 de enero de 1998), por el que se declara Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz.

La Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco (BOPV n.º 157, de 6 de agosto) establece en su artículo 36 la prohibición del derribo de los bienes culturales calificados y de los inventariados sin la previa declaración de ruina y autorización expresa de la Diputación Foral, siendo preciso asimismo la autorización previa del Gobierno Vasco sobre la desafectación.

En desarrollo de la citada normativa se dicta el Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados y actuaciones previas y posteriores a la Resolución sobre el derribo de los mismos (BOPV n.º 226, de 26 de noviembre).

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz remitió al Centro de Patrimonio Cultural Vasco copia del expediente de declaración de ruina del inmueble situado en el n.º 9 de la calle Santo Domingo, en el Casco Histórico, y solicitud para que se incoara el correspondiente expediente de desafectación, de conformidad con el Decreto 306/1998 citado.

Este inmueble es un elemento de protección básica en virtud del Decreto 312/1997, de 23 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz (Álava) y se fija su régimen de protección (BOPV n.º 9, de 15 de enero de 1998).

Mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, de 30 de octubre de 2008, se incoa el expediente de desafectación del inmueble sito en el n.º 9 de la calle Santo Domingo de Vitoria-Gasteiz (BOPV n.º 234 de 5 de diciembre de 2008), en la que se sometía además el expediente a los trámites de información pública y audiencia a los interesados.

Horretarako legez ezarrita dauden izapideak bete ondoren, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hori dela-eta, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren arabera, Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek egindako aldeko txostena ikusirik, Kultura sailburuaren proposamenari jarraituz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak gaia 2009ko otsailaren 10eko bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz sailkatzeko eta hura zaintzeko babes arauak ezartzeari buruzko abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuaren menpean den eta oinarrizko babesa duen Santo Domingo kaleko 9. zenbakiko eraikina desafektatzea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Kultura Sailak Euskal Kultura Ondarearen Zentroari honako hau eskatuko dio: behin-behinekoz ohartarazita dagoen ondasun higiezin hori Zentroari atxikita dagoen Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistrotik ezaba dezala.

Bigarrena.– Kultura Sailak interesdunei, Vitoria-Gasteizko Udalari, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari honako Dekretu hau jakinaraziko die.

Hirugarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak honen berri izan dezan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea amaitzen duen Dekretu honen aurka, lehenik, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Jaurlaritzaren Kontseiluari hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean. Epeak dekretu honen azken argitalpenaren egunaren biharamunetik hasiko dira.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko otsailaren 10ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no ha sido presentada alegación alguna.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto al efecto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, visto el informe favorable de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural, a propuesta de la Consejera de Cultura y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 10 de febrero de 2009,

DISPONGO:

Artículo único.– Desafectar el inmueble sito en el número 9 de la calle Santo Domingo de Vitoria-Gasteiz (Álava), incluido en el Decreto 312/1997, de 23 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz y se fija su régimen de protección.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– Por el Departamento de Cultura se instará al Centro de Patrimonio Cultural Vasco, a fin de que se proceda a cancelar la anotación preventiva del inmueble en el Registro de Bienes Culturales Calificados, adscrito al citado Centro.

Segunda.– Por el Departamento de Cultura se notificará el presente Decreto a los interesados, al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y a los Departamentos de Cultura y Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Tercera.– Publíquese el presente Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Álava para su general conocimiento.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra el presente Decreto, que agota la vía administrativa, podrá interponerse, previamente, en su caso, recurso de reposición ante el Consejo de Gobierno en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

Segunda.– El presente Decreto surtirá efectos a partir del mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de febrero de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.